

Eragileak

Beste herri askotan gertatu ohi den bezala, Alegian ere kultura orokorrean eta horren barruan musika bultzatu duten pertsonak egon dira. Horiek isilean egindako lana izan ez balitz, ez dakigu zer gertatuko zen Alegian, ziurrenik, ez zen hainbeste musikari izango eta hainbat ekintza ere ez ziratekeen egingo. Hona hemen pertsona horiek:

D. Pio Montoia Arizmendi

Honela idatzi zuen Jose Gastesik, "Txintxarri abesbatza 1960-2000" liburuaren 22. orrialdean, D. Piori buruz:

...

Pio Montoia ere 30eko hamarkadan ibili zen tipleak prestatzen. Eta garai horretan hasi zen, hain zuzen ere, nire koru lana.

Haur mordoxka joaten ginen astean hirutan Pio bizi zen San Juan kaleko 47 zenbakira, solfeoa eta gero parrokian kantatu behar genituen eliz kantak ikastera. Lehen pausoak ematen ari zen tiple abesbatzan parte hartzeak gutako bakoitzari sari polita ziurtatzen zion: eskuz erabiltzen zen soka batez martxan jartzen zen Pathe-Baby bati esker, entseguak izaten ziren leku berean eskainitako igandeko zinea. Aho zabalik eta ametsetan bezala, igandero "Ali Baba eta berrogei lapurrak" filma ikusten genuen. Eta futbolerako baloi bat urte amaieran. Zer gehiago behar genuen!

Baina musikari zegokionez, ez zegoen txantxarik. Don Piok ahots lodi eder eta tiple bikainez (Bernardo Azurzak prestatukoak barne) osatutako abesbatza eratu zuen. 1935 eta 1936 urteetan, L. Perosiren meza pontifikalak oso-osorik kantatu ziren eta baita beste pieza asko ere, tartean, geroago inoiz abestu ez den kantu gregorianoren bat zela. Noizean behin mezari hasiera ematen zion eta neronek abesten nuen solo labur bat zuen, "Gaudeamus" bikain hura! Orduan bederatzi urte nituen.

...

Zoritxarreko 1936 urteak Pio Montoiak zuzendutako koru hura hankaz gora jarri zuen. Urte haietan eta, batez ere, ondorengoetan, talentu izugarria eta musika sena berezia zuen apaiz hartaz ederki baliatu nintzen. Berak esnatu zuen niregan musika zaletasuna.

...

Auñamendi entziklopedian beste zita hau dago idatzita:

Sacerdote vasco que tomó parte activa en la lucha de parte del clero vasco frente a la represión franquista. Después del exilio, en 1960, fue uno de los impulsores de la «Carta de los 339». Fundó en la clandestinidad (1948) la revista Egiz, ocasionándole esto sanciones eclesiásticas. Colaborador y amigo del obispo de Vitoria Mateo Múgica, fue su principal valedor durante el exilio, consiguiendo su repatriación en mayo de 1947. Es autor de La intervención del clero vasco en las contiendas civiles (1820-1823), San Sebastián, 1971. Eugenio Ibarzábal ha publicado una amplia entrevista con Montoya en 50 años de Nacionalismo, San Sebastián, 1978.

Ignazio Begiristain Albizu

- Altzon jaio zen, 1922/09/14an.
- Alegian hil zen, 1984/06/13an.
- Antzerkigilea eta antzerki-zuzendaria izan zen.
- Alegiako txistu-ikasleentzat eta beste askorentzat txistuak egiten zituen, Alegiako beste gazte batzuekin elkarlanean.
- Zeruko Argia aldizkariko idazlea.

- Alegiako *Intxurre* antzerki-taldea sortu zuen, Tolosako Oargiko antzerki-taldearen eta Urnietako *Egi-billaren* zuzendaria izan zen eta beste talde askorekin egin zuen lana, horien herrietara joan eta antzerkiak prestatuz.
- Hainbat sari irabazi zituen:
 - o 1969an, *Agora saria*, *Bizia bizi-truk* lanarekin.
 - o Toribio Altzaga saria.
 - o 1983an, Azpeitiko I. Antzerki topaketan, Intxurre taldeak irabazi zuen 1. saria, *Bata zu eta bestea ni* lanarekin.
- Antzerki hauek idatzi zituen:
 - o *Apaiz, langille eta gizon* (1968)
 - o *Bizia bizi-truk* (1969)
 - o *Bakartasun billa* (1970)
 - o *Errurik gabe errudun* (1971)
 - o *Mugausleak* (1973)
 - o *Kiratsa dario* (1974)
 - o *Igartutako landarea* (1975)
 - o *Bata zu eta bestea ni* (1976)
 - o *Txoriak kabia amets* (1978)
 - o *Gorrotoa, heriotza eta negarra* (1979)
 - o *Ernialdeko apaiz txikia* (1980)
 - o *Etsipenaren sareak* (1981)
 - o *Hitz hutsak* (1982)
 - o *Arre astoa; Urrutiko intxaurra* o
 - o *Mariatto*.
- Beste obra asko euskaratu zituen:
 - o 1977an, *Lurrin argia* izenarekin P. Hamiltonen *Luz de Gas* obra.
 - o 1980an, Campionen *Itzaltzuko kobalalaria*.
 - o 1972an, Donostiako Antzoki Zaharrean taularatu zen *Iparragirre*.
 - o 1983an, Euripidesen *Troiarrak*.
- Horiez gain, urte latz haietan, ikastola aurrera ateratzeko eta ikastolako haurrentzako antzerki, jaialdi eta hainbat ekitaldiren bultzatzaile nekaezina izan zen.
- Honako helbide hauetan irakur daitezke Inaxiori egindako elkarrizketa eta berari buruz idatzia:

<http://antzerti.armiarma.com/antz6603.htm>
[Egunkarietan Inaxiori buruz idatzia.](#)

Juan Martin Zuriarrain Barrena

- Albisturren jaio zen, 1919/07/18an.
- 1945ean etorri zen Alegiara, eta lehenengo kezka ikastetxeen egoerak sortu zion. Hori pixka bat zuzendu zutenean hasi ziren ikastetxeetan musika irakasten. Nahiz eta berak musika gutxi zekien, eta ez-ikasiaren penetan egoten omen zen beti, Alegian musikarako joera bultzatzea izan zuen helburua.
- Musika irakasteko antolaketa honela egin omen zuten:
 - o Lehenengo, Amezketako D. Emigdio Lizartza etortzen zen solfeoa irakastera. D. Bizente Aranburu Alegiara etorri zenean, hark jarraitu zuen lan horretan.
 - o Alegiako mojetan, Elia Zapata galiziarrek irakasten zuen. Gero, Axun Salaberrik jarraitu zuen.

- o Ikastetxeetan musika ikasten zuten ikasle asko joaten ziren Donostiako kontserbatoriora azterketak egitera, eta emaitza onak lortzen zituzten.
 - o Musikarekin maila handiagora iristeko asmoz, Ordiziako M^a Paz ekarri zuten, solfeoa eta pianoa irakastera. Ezkondu eta Nafarroara joan bitartean, lan handia egin zuela dio D. Juan Martinek.
 - o M^a Pazen ordeztu, Donostiatik Loreto Fernández Imaz etortzen omen zen (Gaur egun kontzertu asko ematen dituen organista).
- Lan horren guztiaren ondorioak gaur ikusten direla dio D. Juan Martinek, izan ere, Alegian eta kanpoan bizi diren musikari asko dago garai haietan musika ikasten hasitakoak: organistak, konpositoreak, pianistak, soinu-joleak...